



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA



Palestinaren eta Israelen arteko gatazkaren gogortze izugarria gertatzen ari da. Hamasek urriaren 7an egindako erasoak, Israelgo indar armatuek Gazari ezarritako egindako blokeo, bonbardaketak eta era guztietako erasoak horren isla mingarriak dira. Hildakoen kopuruak gora egiten du etengabe, eta Israelek proklamatu duen erabateko gerra-deklarazioak eta bere gobernuak iragarritako oinarrizko horniduren blokeoak muturreko zaurgarritasun-egoeran utzi ditu Gazako herritarrak. Azken hauek hainbat hamarkada daramatzate setiopean, Israelek palestinarren lurak legez kanpo okupatzearen ondorioz.

Israelgo armadaren azken erasoak Gazako iparraldean dagoen Jabaliako errefuxiatu-esparruan izan da, eta 400 pertsona inguru hil dituzte, horietatik gehienak emakumeak eta adingabeak. Zauritutako pertsonak ere ehunka dira.

UNRWAK (Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia) baieztatzen duen bezala, Gazan ikusten ari den suntsipen mailak ez du aurrekaririk, egundoko giza tragedia da. Nazio Batuek proportzio epikoko hondamendi humanitario gisa deskribatu dute. Hildakoen kopuruak gora egiten jarraitzen du, modu ikaragarrian. Azaroaren 2ra arte 9.061 heriotza zenbatu ziren; horietatik 3.760 haurrak ziren, 2.326 emakumeak eta 480 3. adinekoak. Hau da, hilketen % 70 adingabeak eta emakumeak dira. Zaurituak 21.000 baino gehiago dira.

Milioi bat pertsona, Gazako biztanleriaren erdia, Gazako iparraldetik hegoaldera desplazatuak izan dira. Hala ere, hegoaldea ez da bonbardaketetatik libratu, eraso kopuru handi bat izan baita. Ez dago toki segururik Gazan.



Arestian aipatutako guztiagatik, Etxauriko Udalak:

1. Irmo arbuiazten ditu herritar zibilen egindako erasoak, eta elkartasuna adierazten die biktima guztiei eta haien gertukoei. Kolektibo ahulenetako kide diren biktimak.
2. Eskatzen du Gazako Lerroaren eta Palestinako lurralde guztien gaineko setioa eta bonbardaketak bertan behera uztea, bai eta laguntza humanitaria sartzen dela bermatzea eta korridore humanitarioak berehala irekitzea ere.
3. Uste du bake justu eta iraunkorrak herri palestinarraren aurkako okupazioa amaitzea eskatzen duela.
4. Premiazkotzat jotzen dugu elkarrizketa-prozesu bat abian jartzeko beharrezkoak diren neurri guztiak babestea, bake-egoera justu, egonkor eta iraunkorra lortzeko, okupazioaren amaiera eta Palestinako herriak autodeterminaziorako duen eskubidea bermatuz. Hori guztia Nazioarteko Zuzenbidean eta NBERen ebazpenak betetzean oinarrituta.
5. Eskatzen dio Nafarroako Gobernuari lurralde palestinarran diharduten instituzio eta erakunde ezberdinekin lanean jarraitzeko eta indarrean dauden lankidetzazko proiektuei eusteko. Halaber, Palestinako herriari laguntza humanitaria bermatzeko erreferentziazko UNRWA agentzia ere babesten du.

Etxaurin, 2023ko azaroaren 4an




Idoia Aritzala Etxarren
Etxauriko alkatea - Alcaldesa de Etxauri